

Bateragarria da etxebizitza-parkearen jasangarritasuna hobetzeko Europako laguntzekin

## **Kutxabankek etxebizitzak birgaitzeko Eraginkortasun Energetikoaren Mailegua jarri du abian**

- **Obraren kostu osoa finantzatzeko aukera eskainiko du**
- **Jabekideen erkidegoek eskatu ahal izango dute, finantzaketa-modalitate aldakor bat edo finko bat hautatzeko aukerarekin, eta gehienez, 15 urteko amortizazio-epearekin**

**2024ko ekainaren 11n.** Kutxabankek etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa bultzatzeko finantza-tresnak gaitzen jarraitzen du, Kutxabank Eraginek garatzen duen jasangarritasun-politikaren ildotik.

Horretarako, finantzaketa-produktu berri bat merkaturatu du oraintsu, **Eraginkortasun Energetikorako Mailegua** izeneko, **etxebizitzak birgaitze edo eraberritze lanak** egiteko asmoa duten jabeen erkidegoentzat bereziki diseinaturia, Next Generation funts europarren diru-laguntzak eskuratzeko aukerarekin.

Kutxabanken Eraginkortasun Energetikorako Maileguak energia-kontsumoa murrizteko eta eraikinen errendimendua hobetzeko lanak finantzatzeko aukera ematen du, **15 urtera** arteko amortizazio-epearekin.

Jabeen erkidegoek, pertsona fisikoek, energia-erkidegoek edo pertsona juridiko onuradunek bi finantzaketa-formula aukeratu ahal izango dituzte, Euriborrari erreferentzia egiten dion **aldagaia** edo **tasa finkoa**. Finantzazioa obraren kostuaren % **100era irits daiteke**.

Etxebizitzaren birgaitze eta hobekuntza energetikoa da erakundeak lantzen duen eremuetako bat Kutxabank Eraginen bitartez, bere banku arduratsuen eremuan aurrerabidea egiteko eta gizarteari ekonomia deskarbonizatu baterako trantsizioan laguntzeko.

Birgaitzeko eta laguntzak eskatzeko prozesua konplexua izaten da jabeen erkidegoentzat, barne hartzen baititu laguntzak zein baimenak eta lizentziak eskatzeko proiektuaren bideragarritasunaren hasierako azterketa, birgaitze-jarduketara osoaren kudeaketa, obraren exekuzioa eta obraren amaierako akta.

Horregatik erabaki ohi dute jabe askok laguntzak izapidetzen eta obrak egiten **espezializatutako eragileen** laguntza izatea.

Kutxabankek lankidetzeta-hitzarmenak ditu **Mugabi, Effic eta Agentia R+** enpresekin. Horiek izapide guztiak egiteaz arduratzen dira, eta esperientzia eta ezagutza ematen dute prozesuaren kudeaketa integrala egiteko.

Jabeen erkidegoek obra bere osotasunean ez finantzatzea erabakitzen badute, bezeroek banaka kontrata dezakete baldintza bereziak dituen mailegu pertsonal bat, eraginkortasun energetikoa bultzatzeko obrak direlako.

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.